



Gaia: 5/2016

EBAZPENA, (...)KO DIPUTATU (...)K EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, HORRETAKO GAIA BAITA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ORDEZKARI GISA (...) ENPRESAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAN IZAN DEZAKEEN PARTAIDETZA, ENPRESA HORRETAN LAN EGIN BAITU FORU DIPUTATU IZENDATU ZUTEN ARTE

I.- KONTSULTA

1.- 2016ko uztailaren 6an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) igorritako mezu elektronikoaren bidez interesdunak, (...)ko foru diputatuak, iritzia eskatzen dio EEBri; izan ere, (...) enpresako administrazio kontseiluko kide izendatu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa –Aldundiarena da enpresa horren kapital sozialaren % 50-, baina interesdunak enpresa horretan lan egin du foru diputatu izendatu zuten arte.

2.- Mezu elektroniko horretan, eskatzaileak azaldu du Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak 3.3.i) arauan xedatzen duela foru kargu publikoek elkarrekin eta bestelako entitateetan kargu organikoak edo gerentzia karguak bete ahal izango dituztela, baldin eta funtzio horiek betetzean interes gatazkarik sortzen ez bada edo interes gatazkarik sortzen ez dela badirudi. Eta horrelako funtzio edo ardurarik betetz gero, hori berme organoari jakinarazi beharko zaiola lehenbailehen, era horretan, azken horrek dagozkion neurriak har ditzan.

Hain zuzen arau hori betetzeko egin du kontsulta interesdunak, etikari lotutako zalantzak sortu baitzaizkio, eta erakundearen zuzentasun balioak babesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Adierazi du, gainera, jakin nahi duela ea esku hartu dezakeen, (...)ko foru diputatu gisa, (...) alderdi interesatu den erabakietan, edo, bestela, abstenitu egin beharko lukeen, eta, azkenik, ea foru diputatu kargua utzi ondoren itzul daitekeen aipatu enpresarekin lan-harremana mantentzera.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Zuzentasun Sistema onartu zuen 2016ko martxoaren 1ean, etika publikoa eta eredugarritasuna bermatzeko eta ezaugarri bilakatzeko xedez.

Sistema horrekin batera, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kode bat onartu zen. Kode horrek foru kargu publikoek eta asimilatuek bete eta sustatu behar dituzten arauak ezartzen ditu, beren funtzioak eta jarduera publikoak betetzean, eta hala dagokionean, baita esparru pribatuko jarduerak egitean ere, horiek jardunean ari diren erakundearen irudia kaltetu badezakete. Hori guztia zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzeko helburuarekin, erakundearen irudia babestuz.

2.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak zortzi balio –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna, bizikidetzeta eta errespetua- eta zortzi printzipio aipatzen ditu: lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernua eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

Balio eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horiek osatzen dute EEB honek baliatu behar duen erreferentziazko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezten interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkieten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemari aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeari jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-beteteri edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta langile baliokideen gainean proiektatuko dira, eta baita Foru Administrazioaren eta beronen foru sektore publikoaren zerbitzuko pertsonalaren gainean ere, hala badagokio.



4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoak, 3.b) artikuluan xedatzen du ezen EEBri dagokiola ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 1.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eskatzaileari aplikatu dakioke

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Planteatzen den lehen kontua foru diputatu karguaren eta (...) enpresako administrazio kontseiluko kide karguaren arteko bateragarritasunari buruzkoa da, enpresa horretan kapitalaren % 50 Foru Aldundiarena baita, eta interesdunak enpresa horrentzat lan egin baitu (...). urtetik foru diputatu izendatu zuten arte.

(...) andrea (...) enpresako administrazio kontseiluko kide izendatua izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa, Diputatuen Kontseiluaren (...)ko erabakiaren bidez.

Bi karguen arteko bateragarritasunari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 37. artikuluan xedatzen du foru diputatuen bateraezintasunen araubidea izango dela diputatu nagusiarentzat 24. artikuluan ezarritakoa.

Hain zuzen ere, artikuluko horrek xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko kargu publikoentzako ezarrita dagoen bateraezintasunen araubidea aplikatuko dela: 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituena. Lege horren 15.1.c) artikulua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparrura aplikatuta, aitortzen du foru diputatu kargua betetzea bateragarria dela organismoetako, sozietateetako edo beste edozein entitate publikotako administrazio kontseiluetan kide izatearekin.

Hala ere, nahiz eta hasiera batean bi karguak bateragarriak izan, Gipuzkoako Foru Administrazioako kargu publikoen eta langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien

Kodeak mugak ezarri dizkio bateragarritasun horri, berariaz ezartzen baitu kargua bete ahal izango dutela, baldin eta funtzio horiek betetzean interes gatazkarik sortzen ez bada edo interes gatazkarik sortzen ez dela badirudi. (3.3.i araua).

Horrela, bateraezintasunen arloko legedia betetzeaz harago, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak beste neurri mota bat hartzeko obligazio etikoa ezartzen die kargu publiko eta asimilatuei, kautelazko edo prebentzioko neurriak alegia, sor litezkeen interes gatazkak saihesteko helburuarekin.

Arauk dio, gainera, egoera horretan aurkitzen den pertsonak lehenbailehen jakinarazi behar diola Etika Batzordeari, dagozkion neurriak har ditzan.

Horrez gain, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak erakunde zuzentasunari dagozkion balioak zerrendatzen ditu, kargu publikoek eta asimilatuek bete behar dituztenak, eta berariaz aipatzen du, zintzotasunari eta eskuzabaltasunari dagokionez, honako hau: *“Foru kargu publikoek interes publikoko helburua betetzeko eta Gipuzkoako herritarren interes orokorren alde soilik egingo du lan. Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari edo erakundeari jakinarazi beharko dio lehenbailehen, edo bestela, Etika Batzordeari, hala badagokio. Edonola ere, aurreko atalean zehaztutako baldintzetako bat ematen bada, ez du parte hartuko dagokion erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka...”* (2.2.4).

Arau horiekin, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak interes gatazkak gertatzea saihestu eta ekidin nahi ditu, interes gatazka horiek errealak, posibleak edota itxurazkoak izan; horrela, interes gatazka baldin badago, edo egon daitekeela badirudi, ezingo dira bi karguak batera bete. Eta xede horrekin, EEB honek kasuan kasuko neurriak hartzeko edo proposamenak egiteko ahalmena du.

Kasu honetan, foru diputatua, batetik, (...) enpresaren administrazio kontseiluko kide da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa, eta bestetik, enpresa horretako langile izan da, (...) gisa, foru diputatu izendatua izan zen arte; beraz, uste dugu bi interes publiko desberdinen konkurrentzia gertatzen dela, eta interes pertsonal posibleak ere egon daitezkeela, aipatu enpresarekin izandako lan-harremanagatik.

Gainera, kontuan hartu behar dira bai kargu bati bai besteari dagozkien eskumen eta ahalmenak. Lehenik, foru diputatuen eskumenak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauan ezarrita daude. Bertan ezartzen da, Diputatuen Kontseiluko kide izateagatik dagozkien eginkizunez gain, foru diputatuen eskumena izango dela beren ardurapeko



Departamentuaren antolakuntza, erabaki, kudeaketa, ikuskatzailtza eta ordezkari-tza beren gain hartzea, horretarako behar diren erabakiak hartuta eta bereziki araugintzaren gainean, antolamendu zuzendaritza gaietan, aurrekontu gaietan eta gastu baimenetan, kontratazio arloan eta departamentuaren ordezkari-tza gaietan (40. art.).

Bestalde, (...) enpresako administrazio kontseiluaren eskumenak sozietatearen estatutuen 21. artikuluetan jasotzen dira, eta bertan ezartzen da sozietatea administratzeko ahalmen zabalenak izango dituela, eta berariaz zerrendatzen ditu zereginetako batzuk (besteak beste, ondasun higigarri eta higiezinak saldu eta eskuratzea; merkataritza, banku eta burtsa eragiketak eta bestelako eragiketa zibilak egitea; eta lehiaketa, enkante eta lizitazioetan parte hartzea, proposamenak eta eskaintzak eginez.)

Beraz, erantzukizun goreneko ahalmenak dituzte bai kargu publiko batek bai besteak.

Hori horrela, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.3.i) arauak aurreikusitako bateragarritasun mugak kontuan hartuta, interes gatazkak aurreikusten dituzten arauak aztertu behar ditugu.

Horri dagokionez, 3.4.d) arauak jasotzen duenaren arabera, interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere.

Gainera, 3.4.e) arauaren arabera interes gatazka dagoela dirudi foru kargu publikoaren ustez, bere eskumeneko jarduera, esku hartze edo erabakiek ez badute eraginik bere interes pertsonaletan, familia interesetan edo berari lotutako hirugarren pertsonen interesetan, ezta pertsona horiek nolabaiteko harremana izandako enpresa edo entitateen interesetan, baina ikuspegi objektibotik begiratuta, jarduera, esku hartze edo erabaki horrek erakundearen irudia zuzenean eta nabarmen kaltetzen badu herritarren aurrean.

EEBren zeregina da kargu publikoen jardunean sor daitezkeen jarrera desegoki hipotetikoei aurrea hartzea, era horretan Foru Aldundiaren irudia eta klima etikoa babestu eta bermatzeko (3/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Gipuzkoako Lurralde

Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoa: 3.a) artikulua).

Hori dela eta, kasu honetan ematen diren baldintzak eta egoerak aztertu eta balioetsi ondoren, eta Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 3.3.1 araua aplikatuta, Batzorde honek uste du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren zuzentasun kultura sustatzeko neurririk egokiena dela interesdunak, hots, (...)ko foru diputatuak, ez parte hartzea (...) enpresako administrazio kontseiluan, interes gatazka errealak nahiz itxurazkoak saihesteko.

2.- Interesdunak planteatzen duen bigarren kontua da ea (...)ko foru diputatu gisa parte hartu dezakeen (...) enpresa alderdi interesatu den gaietan edo, bestela, abstenitu egin beharko litzakeen.

Lehenik eta behin, aztertu behar da ea gertatzen den Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Erkideari buruzko 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 28.2 artikuluan arautzen dituen abstentzio kausetakoren bat:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
- b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo baltzu interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzan.
- c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritu izana.



- e) Gaiari zerikusituz zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izana.

Foru diputatu karguan dagoela, gertatzen da 28.2.e) artikuluan aurreikusten den abstentzio arrazoia, (...) enpresarekin lan-harremana izan duelako, (...). urtetik foru diputatu izendatua izan zen arte.

Beraz, interesdunak ez du parte hartu behar (...) enpresa alderdi interesatu den gai horietan.

Are gehiago, erakundearen zuzentasunarekin lotutako jokabide arauak aplikatu behar zaizkio, zehazki Gipuzkoako Foru Aldundiko kargu publikoen eta langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d), 3.5.a) eta 3.5.b) arauak.

Batetik, horietako lehenak jasotzen duenaren arabera, interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere.

Bestetik, 3.5.a) eta b) arauak jasotzen dute ezen foru kargu publikoek objektibotasunez eta interes orokorren zein herritarren interesen alde jardun beharko dutela beren jardura publikoetan, eta, horretarako, beren funtzioetatik kanpo utzi beharko dutela edozein jardura susmagarri, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei zuzeneko zein zeharkako onura sor diezaieketela badirudi.

Gauzak horrela, kasu honetan uler daiteke interes gatazka bat dagoela 3.4.d) arauan finkatutako baldintzetan eta, gainera, kontuan harturik foru diputatu karguan aritzean saihestu egin behar dela modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate publikoei zuzeneko zein zeharkako onura sor diezaiekeela dirudien jardunbide eta jardura oro, EEB honen iritziz interesdunak ezin du parte hartu (...) enpresa alderdi interesatu den gaietan, batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura

Erkideari buruzko Legearen 28. artikulua betetzeko, eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Administrazioako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauak betetzeko.

3.- Planteatzen den azkeneko kontsulta da ea foru diputatu kargua utzi ondoren itzul daitekeen (...) enpresarekin lan-harremana izatera.

Lehenik eta behin kontuan izan behar da interesdunak etorkizuneko egoera bati buruzko kontsulta planteatu duela eta beraz, agintaldia bukatzen denean aztertu eta ebatzi beharrekoa, momentu horretan indarrean egongo den araudia aplikatuz. Hortaz, ondoren egingo den azterketa egungo araudian oinarritua dago eta gogoeta horren arabera egin da.

Gipuzkoako Foru Administrazioako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 7.5 atalak ezartzen du, lehendabizi, Kodean zehaztutako betebeharrak eta konpromisoak aplikagarriak izango direla foru karguaren izendapena egiten denetik hori kargutik kentzen den momentura arte, eta, bigarrenik, betebeharrak eta konpromiso horiek, "ex ante" egoerengatik sortzen diren interes gatazketan izan ezik, ez direla aplikagarriak izango kargu publikoak Foru Aldundiarekin alde aurretik edukitako hartu-emanetan, ezta foru administrazioaren zerbitzura lan egin ondoren, eta erakunde horrekin edukitako harreman organikoa amaitu ondoren sortzen diren "ex post" jardueretan ere. Izan ere, kasu horietan interes gatazken esparruan indarrean dagoen foru legeria edo araudia aplikatuko da

Bestalde, kontuan hartu behar da kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkek arautzen dituen 1/2014 Legeak, ekainaren 26koak, 18. eta 19. artikuluetan xedatutakoa.

18. artikuluan xedatutakoaren arabera, kargu publikoak betetzen dituztenek, kargua uzten duten egunetik hurrengo bi urteetan, kargua dela-eta zuzeneko harremana izan duten enpresa, sozietate edo beste edozein entitate pribaturi ezingo diote inolako zerbitzurik eman, eta ezingo dute, haiekin, inolako lan-harremanik edo merkataritza-harremanik izan. Ondorio horietarako, pentsatuko da zuzeneko harremana egon dela baldin eta aipatu enpresa, sozietate edo entitateekin lotutako ebazpenik eman badute kargu publikodunak edo beraren menpeko organoek, dela eskuordetzaz dela ordezpenez, edo goragoko organoek, kargudunaren proposamenez, edo, orobat, esku hartu badute enpresa, sozietate edo entitate horiekin lotutako ebazpenen bat hartu duen kide anitzeko organoren baten bileretan.



Aitzitik, zuzeneko harremanaren kontzeptutik kanpo geratzen dira honako hauek: enpresa, sozietate edo entitate horiek modu orokorrean jarri diren betekizun edo baldintza objektibo batzuk bete behar dituen talde batekoak badira eta talde horretakoak izate soilak eragin badu haiei buruzko ebazpenak hartzea edo ematea, eta betekizun edo baldintza haiek ez badaude norgehiagoka ari diren hainbat subjekturen arteko ezein administrazio-prozedura lehiakorretan. Orobat, ez da zuzeneko harremantzat joko ebazpena, norgehiagoka bidezko administrazio-prozedura baten barruan hartuta, kide anitzeko organo tekniko batek proposatutako moduan ematen bada, betiere organo horren ahalmenetako bat ebazpenak proposatzea denean, eta ebazpena ematen duen kargu publikodunak ez badu erabakirik hartu kide anitzeko organoaren osaeraz.

Bestalde, 19. artikulua xedatutakoaren arabera, kargua utzi ondoren bateragarritasuna aitortzea, hau ez den beste organo bati dagokio.

Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA

Lehena.- Foru diputatu kargua eta (...) enpresako kontseilari kargua batera betetzeagatik ere, interesdunak ez du urratzen Gipuzkoako Foru Administrazioako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea.

Hala ere, 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoaren 3.a) artikulua ematen dizkion ahalmenak baliatuz, Batzorde honek proposatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren zuzentasun kultura sustatzeko neurri egokiena delako, interesdunak parte ez hartzea (...) enpresako administrazio kontseiluan, interes gatazka errealak edo itxurazkoak saihesteko xedez. Beraz, EEBk proposatzen du administrazio kontseilutik dimititzea.

Bigarrena.- Eskatzaileak (...) alderdi interesatu den gairen batean erabakiren bat hartu behar izango balu, edo bere interes zirkuluan eragin zuzena edo zeharkakoa izan

dezakeen gairen baten inguruko ebazpena eman behar izango balu, abstenitu egin beharko da, betetzeko, batetik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28. artikulua eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Administrazioko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauak.

Abstentzioak Gipuzkoako Foru Administrazioko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak exijitzen dituen berme guztiak bete ditzan, ebazpen honen apartatuan aipatzen diren gaiak hierarkikoki interesdunaren mende ez dauden organoek kudeatu eta ebatzi behar dituzte.

Hirugarrena.- Batzorde honek proposatu bezala, interesdunak (...) enpresako administrazio kontseiluko kide izateari uzten badio eta enpresa alderdi interesatua den gaitan abstenituko balitz, foru diputatu kargua utzi ondoren itzul daiteke enpresarekin lan-harremana izatera, agintaldian zehar kargua dela eta zuzeneko harremanik izan ez duelako eta Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea urratu ez duelako.

Donostian, 2016ko uztailaren 18an.

Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria

Imanol Lasa Zeberio